

BARNE ARAUDIA

1. Talde bakoitzean gutxienez 8 eta gehienez 10 ikaslek parte hartuko dute.
2. Igeriketa zerbitzuko arduradunak erabakiko du talde bakoitzeko ikasle kopurua. Adibidez, 20 ikasle 17:00tako ikastaroan eta 10 ikasle 18:00tako ikastaroan. Guztira 30 ikasle.
3. Izen emateak ikastaro jakin baterako egingo dira (11:00tako ikastarorako, 17:00tako ikastarorako, 18:00tako ikastarorako, etabar). Aukeratutako ordutegian-ikastaroan tokirik ez balego beste batean egiteko aukera adieraziko da eta zein ordutegi-ikastarotan esango da.
4. Matrikula ordaintzea ezinbestekoa da zozketan parte hartzeko
5. Izena emandako guztien artean zozketa egingo da Legazpin erroldatutakoek lehentasuna izango dutelarik. Lehenik zozketatuko dena lehenengo ikastaro-ordutegia zozketatuko da, gero bigarrena, hirugarrena, e.a. Horrela tokia lortu dutenen 30 (edota igeriketako arduradunak adierazitako kopuruak) ikastaroa egiteko aukera izango dute. Izena eman duten guztiak zozketatuko dira erreserba guztiei zenbakia jartzeko.
6. Lehen ikastaroan-ordutegian erreserban geratu den norbaitek bigarrenera, hirugarrenera, e.a., pasatu nahiko baluke izen ematerakoan horrela adierazi duelako eta aukeratutako ikastaro-ordutegian tokia egon, zozketaren ordena jarraituko da hurrengo ikastaroa bete arte.
7. Zozketa hilabete bakoitzeko 25an egingo da 17:30 eta 18:00 bitartean (ordua finkatu gabe geratzen da). Egun hau urteko egutegiaren arabera aldatu daiteke. Dena den zozketako egunetik ikastaroaren hasera bitartean 4 egun igaro beharko dira gutxienez.
8. Zozketa egin ondoren behin behineko zerrenda aterako da eta argibidetako panelean jarriko da.
9. Igeriketako ikastaroaren eta gainontzeko zerbitzuen garapen egokirako, ostirala bakarrik izango da ikasleak ikusteko eguna.
10. Araudi honetan aurre ikusita ez dagoena zuzendaritza batzordeak erabakiko du.